

Martin Berasategi.



**"EZ DUT
INOIZ AMORE
EMATEN
ETA ERANSTE
N SAIATZEN
NAIZ".**

Atungorri bidalketa handia jaso du Aterpek, gizarte eta bizileku bazterkerian dauden pertsonentzako CARITAS GIPUZKOAREN eguneko eta gaueko arreta-zentroak. Kataluniako Grup Balfegó enpresa, zenbait sukaldarirekin harremanetan jarri zen, eta Martin Berasategi (Donostia, 1960) zegozkion dohaintzako 50 kiloak, Aterperentzako izatea erabaki zuen.

Zer ezaugarri ditu atungorriak?

Bitxi gastronomikoa da, oso osasuntsua eta hainbat tenperaturatan presta daiteke.

Zergatik erabaki zenuen atungorriak Aterperantzko bidea hartzea?

Lehenik eta behin, beti saiatzen naiz ni jaioterriaz oroitzen, Donostiaz, eta, jakina, baita Gipuzkoaz ere. Dohaintza hau CARITAS GIPUZKOARI egitea erabaki nuen, guztiontzat hain egun zail hauetan ilusioaz kutsatzeko. Ez dut inoiz amore ematen eta eransten saiatzen naiz. Eta CARITAS GIPUZKOAK, nik bezala, erantsi egiten du!

Ezaguna da ogien eta arrainen miraria. Kasu honetan, zuk arrainak jarri dituzu.

Denok geunden borrokatzeko prest, baina koronabirusa ez dakigu zenbat denbora geldituko den gure artean, ezta noiz joango den ere. Aurrean dudan pertsonaren lekuan jartzen saiatzen naiz, eta, nire sentikortasunetik, jendea gozatzen eta zoriontsu izaten saiatzen naiz. Hori irakatsi zidaten umetatik amak eta aitak.

Batzuek diote ez dagoela plazer handiagorik, lagunekin, mahaiaren bueltan otordu bat egitea baino.

Erabat ados nago. 15 urterekin hasi nintzen, eta 45 urte geroago, gozatzea eta gozaraztea gustatzen zait. Eta horretarako, mahaia lekurik egokiena da.

CARITAS GIPUZKOAN uste dugu jatea garrantzitsua dela, baina lagunartean jatea are garrantzitsuagoa da: bakardadeari aurre egitea, alegia.

Jakina. Ez dut ulertzen bakarrik jate hori! Ni, 'ni' borrokatu, eta 'gu' bultzatzeko hezi ninduten.

Martin Berasategi.

Hau da, partekatu, gozatu, poza eman... Eta horren guztiaren atzean, esfortzua, adorea, ilusioa... daude.

Lan egiten denean, bai batentzat, bai guretzat lortzen dira gauzak. Beraz, egunero CARITAS GIPUZKOArekin elkarlanean aritzen diren pertsonak giza-bitxiak dira, eta gure bihotzeko zuntz sentikorrena ukitzen digute.

Nire etxera jatera gonbidatuko banizu...

Edozein gauzarekin pozik egongo nintzateke! Baina ez nizuke sukaldean aritzen utziko.

Nola?

Ez dut inoiz uzten inork kozinatzea, ez nire etxean, ezta lagun baten etxera joaten naizenean ere. Nik kozinatzen dut beti. Hori da norbaiti egin diezaiokean oparirik onena. Ez dakit kantatzen, soilik kozinatzen dakit. Gozarazteko nire modua da.

Nola aurkezten duzu zure burua?

Lehen urrats gastronomikoak ematen hasi nintzenean, ez zegoen sukaldaritza-eskolarik. Nire amaren, aitaren eta izebaren ondoan ikasi nuen. Hainbeste kostatu da lanbide honi balioa ematea, sukaldari naizela esatea gustatzen zait. Baterik ez.

Koronabirusari aurre egiteko txertoa, su-motelean prestatu beharko al da?

Zoritxarrez, bai. Zientziaren esku gaude, eta lan egiten utzi behar diegu. Lanbide asko miresten ditut, baina egoera honen ondoren, are estimu handiagoa diet. Lehengai gutxirekin aparteko menua egiten ari dira!

Martin Berasategi ere etxean sartuta dago.

Bai. Errezeta, teknika, kontzeptu berriak... sortzen ari naiz. Orain, aterki oso beltz baten azpian nago, eta aterkirik gabeko egun hori nolakoa izango den pentsatuz ikusten dut argia. Ostalaritza eta dendak irekitzeko aukera izaten dutenean; kontzertu batera, elizara, futbol-zelai batera, su artifizialak ikustera... joateko aukera izaten dugun une horretan pentsatzen dut.

Gerra bat, eta bizitzea tokatu zaigunaren arteko aldea, eraikinak osorik daudela da, eta hau guztia pasatzen denean, mundu berbera aurkituko dugu, baina, pertsona hobeak.

“

Zientziaren esku gaude, lehengai gutxirekin aparteko menua egiten ari dira!